

JULITA BERROJALBIZ'EK

(ASTEARTEA)

Gaurko gaia "Euskerea Bilbao'n" da. Gaiaren emoi-ilea, Julita Berrojalbiz gure artean oso ezaguna da, euskeraren aide egindako lan ugari ta baliotsuagaitik.

Bera izan zan, zapalkuntzaren urte luze ta illun areitan, eskukada irakasle-talde batatz, euskerea eskubete erein ebana gure Bilbao lakoa zan uri erdaldunean. Ereintza au ikastolen bidez gertatu zan, eta artzailleak umeak izan ziran, eta izan be, ezin ereintza obarik, umeen artean egiten dana baiño, eurok dira-ta gure etorkirako itxaropena. Zalantzarik bage esan dagikegu, Bilbao gaur aspaldiko erdal-itxura galtzen asi ba'da, Julita lako gizakiak buru-belarri euskerearen aide aalegindu ziralako dala.

Asko zor dautsegu Julita ta bere laguntzailleai, aspaldi luze ta zail aretan, ikastolen oiñarria jarri ebela-ko, guztitariko ostopo ta jazarkundeai aurre emonez. Badira goi-dei batatz orniduta dagozan gizakiak, eta oneitariko bat Julita dogu, euskerarekiko maitasunaren maitasunez, gure arbasoen berbeteari eutsiz, eta guztitariko oztopoak garaituz.

Bera izan da, urteetan zear euskal krisailluari orio emon eutsoenetariko bat, geure uri onetan aberri-izkuntzaren oiartzunak ugaritu zeitezan.

Asieran esan dot, Bilbao uri erdalduna zala, baiña gaur esan daiteke len besteko erdalduna ez dala, euskal azia ereintzen saiatu ziranai esker.

Entzun egiozue ba Julita'ri bere esatekoa oso jakin-garria izango dalakoan.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

EUSKERA BILBAO'N

Ez dakit nik askok dakien zelako eragozpenak eta zelako laguntzak izan ziran Bilbao'n Ikastolak sortze-ko guraria ta ekintzak agertu ziranean, baiña Bilbao'n euskerea zelán dagoan aztertu nai dogunean, arazo on bururatu jaku lenengo.

Guztiok egin dogun lan bat izan da on eta guztion izenak ezin agertu doguzan ezkerero, beti jazoten dana, batzuk gogoratu bearko doguz.

Lenengo San Nikolas parrokian izan zan katekesian asi gintzazan. Katekesi au oso ospetsua izan zan mundu zabalean eta antxe izan genduan lenengoz zerbait euskeraz irakasteko eta euskerea bera irakasteko

aukerea, antxe asi giñan umeai irakurten eta idazten irakasten, euskeraz esan nai dot, baiña andik urten-bearra izan zan.

Gero Frantziskotarrak eskiñi eben euren etxea Iralabari'n eta antxe asi zan barriro ikastolea baiña begiratzailleak egun baten Euskalerriko Lutelestia edo Jeografia irakasteko ikas-liburu bat ikusi eban eta salatu egin ginduzan liburu orretan iparraldean Frantzia eta egoaldean España agertzen ziralako eta orduan andik be urten egin bear izan zan. Ez geunkan ba urtenbide onik, baiña gure gogoa bizia zan ezkerero, etxeetan banatuta ikastolea ipiñi genduan. Aldi orretan len ain arerio izan genduan begiratzaillea pizka bat bigundu egin zan, bere burua baztertuta ikusten ebalako, baiña lege barn bat sortu zan etxeetan lenengo maillako ikasketak eurak be egitea galerazten ebana eta ezin gendun lortu gure umeen ikas-neurri edo noten liburuak legez-tatzerik.

Zer egin? Ez zan ikusten beste biderik legearen arauak beteten ebazan ikastola bat sortzea baifio, eta orixe izan zan Azkue Ikastolea.

Bazkideak asko ugaritu ziran, laguntzailleak ugari izan ziran eta, zori onez Ikastola eder bat sortu al izan da, Bilbao'tik kanpora dagoan Lauro'n eta an jarraitzen da gaur be euskerearen aide lan egiten.

Ezin itzi geinkez emen aitatu batik Xabier Pena eta Iñaki Goikoetxea, euren ikas-liburuakaz eta lanakaz asko lagundu euskuelako. Eta beste izen batzuk be esan-bearrekoak dira baiña parkatu beiste. Eurentzat nire eta Bilbao'ko guraso asko eta askoren esker ona.

(Berbalditik artutako jakingarri batzukaz egin da laburpen au)

BILBAO'N EUSKERA

Bizkai orleiko uri-burua
Bilbao zoragarria,
itxaso eta burdin miñekin
bizitza sendoz jantzia;
ondasun orrek direla-eta
galdu zure izkuntzia,
erruki barik kendu eutzuen
erriaren arimia.